**Kudeaketari buruzko txostena**
***Informe de Gestión***

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

**Euskalduna Jauregia, U.A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.U.***

Inauguratu zenetik izandako ekitaldi guztietan bezala, 2019ko ekitaldia ere cash flow positiboarekin itxi du Euskalduna Jauregiak, eta, ondorioz, aurten ere ez da egon ustiapeneko dirulaguntzak erabiltzeko beharrizanik.

Euskalduna Jauregia cierra el ejercicio 2019, al igual que todos los ejercicios habidos desde su inauguración, con un cash flow positivo, lo que ha hecho innecesarias, un año más, la utilización de subvenciones de explotación.

2019ko ekitaldian urteko egunen % 90eko okupazioa lortu da. Okupazio indize horri honakoak gehitu behar zaizkio: 346 kongresu eta bilera, 362 emanaldi eta 418.346 bertaratu. Horrek ahalbidetu digu 2019, urteari begira ezarritako helburuak aise eta erraz lortu izana eta espainiar Estatuko kongresu jauregien rankingean daukagun kokapen pribilegiatuari eutsi izana.

En el año 2019 se ha alcanzado una ocupación del 90% de los días del año. Este índice de ocupación, unido al número de Meetings&Events 346, las 362 representaciones los 418.346 asistentes nos ha posibilitado alcanzar los objetivos marcados para el año 2019 y nos ha permitido mantener nuestra privilegiada posición en el ranking de Palacios de Congresos del Estado español.

Euskalduna Jauregiko instalazioetan 708 ekitaldi eta emanaldi egin ziren 2019. urtean.

En las instalaciones de Euskalduna se realizaron a lo largo de 2019 un total de 708 eventos y representaciones.

Ekitaldian, eta kalitatearen aldeko apustuarekin jarraituta, Euskalduna Jauregiak honako ziurtagiri hauek berritu ditu: ISO 9001:2015 Kalitatearen Kudeaketa, ISO 14001/2015 Ingurumen Kudeaketa, OHSAS 18001/2007 Laneko Segurtasun eta Osasun Kudeaketa eta UNE 187004/2008 Biltzar Jauregien Turismo Kalitatea. Dokumentu honetan adierazi den bezala, beste bi ziurtagiri eskuratu dira: Irisgarritasun Unibertsalaren UNE 170001-2 eta U.S. Green Building Council-ek emandako LEED ziurtagiria.

Durante el ejercicio, y como continuación de la apuesta por la calidad, Euskalduna ha renovado y adecuado sus sistema de gestión a las certificaciones de Gestión de Calidad ISO 9001:2015, Gestión de Medioambiental ISO14001/2015, así como el Certificado Medioambiental LEED según el U.S.Green Building Council, Gestión de Seguridad y Salud en el trabajo OHSAS 18001/2007, Gestión de la Accesibilidad Universal según normas DALCO UNE 170001-2 y de Calidad Turística de Palacios de Congresos UNE 187004/2008.

Euskaldunak 2018. urtean zilarrezko hizkuntzakudeaketaren BIKAIN kalitate-ziurtagiria lortu zuen, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Erakundearen aldetik euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketan normalizazio-maila zehatza adierazten du. Modu horretan, ziurtatua era onartua gelditzen da.

Euskalduna obtuvo en 2018 el certificado de Calidad en la Gestión Lingüística BIKAIN, plata, otorgado por el Gobierno Vasco y que acredita un nivel determinado de normalización en la presencia, uso y gestión del euskera por parte de la entidad quedado así, certificada y reconocida.

Euskalduna Jauregian 2019. urtean gauzatutako jardun osoaren eragin ekonomikoak 92,36 milioi euroko BPGd sortzen eta Euskadin 1.301 mantentzen lagundu du. Era berean, Euskaldunan gauzatutako jardunak 9,70 milioi euroko zergaitzulketa ekarri du

El impacto económico de la actividad total desarrollada en Euskalduna Jauregia a lo largo del año 2019, ha contribuido a una generación de 92,36 millones de euros del PIB y al mantenimiento de 1.310 en Euskadi. Así mismo, la actividad realizada en Euskalduna ha supuesto unos retornos fiscales de 9,70 millones de euros.

Hori guztia dela eta, Euskalduna kultur eragile modura finkatu da eta aurten ere ez da beharrezkoa izan dirulaguntza publikoak erabiltzea. Nolanahi ere, lehen mailako erreferentzia puntua izaten jarraitzen du, kongresu eta bilera jarduerak aurrera eramateko eta askotariko kultur, gizarte eta aisialdi adierazpideak abiarazteko.

Por todo ello, Euskalduna se consolida como el gran motor cultural del que ha vuelto a hacer innecesaria, un año más, la utilización de subvenciones públicas y continúa siendo un punto de referencia de primer orden para un gran número de actividades Meetings&Events así como para múltiples manifestaciones culturales, sociales y de ocio.

## Jarduera

Aurreko ekitaldian ere aurreikuspen guztiak gainditu dira: 346 biltzar eta bilera, eta 362 musika emanaldi eta ikuskizun.

## Actividad

En este ejercicio se ha alcanzado la cifra de 346 Meetings&Events y 362 representaciones musicales y espectáculos.

## Biltzar eta bilera jarduerak

Biltzar eta bilera kopurua honela banatzen da:

## Actividad Meetings&Events

El número de Meetings&Events se distribuye en:

| | |
|---|---|
| ❑ Biltzarrak eta antzekoak / Congresos y Asimilados | 31 |
| ❑ Batzar eta Asanblada Orokorrak /Juntas y Asambleas Generales | 14 |
| ❑ Enpresako Ospakizunak eta Konbentzioak /Convenciones y Actos de Empresa | 19 |
| ❑ Mintegiak eta Jardunaldiak /Seminarios y Jornadas | 200 |
| ❑ Gizarte Ekitaldiak /Actos Sociales | 26 |
| ❑ Erakusketak/Exposiciones | 49 |
| ❑ Bestelakoak (Erakusketak, irrati eta telebista saioak, eta abar.) / Varios (Exposiciones, programas de radio y TV, etc..) | 7 |

Enpresa-topaketak joera markatzen ari dira eta bilera nahiz biltzarren arloan diru-sarreraren iturri nagusi dira, osasun-sektoreko eta erakundeeremuko bilera aurretik.

Halaber, 31 biltzar izan dira eta horietatik 6tan 1.000 partaide baino gehiago Bildu dira. Hala, etorkizunari begira, eremua finkatzen duten merkataritza-hitzarmenak sinatu dira Ohar modura, lantzen diren jarduera-segmentuen arabera, lantaldea berrantolatu da eta hiru atal espezializatu eratu dira: biltzarrak, businessa eta kultura.

Los encuentros de empresa apuntan tendencia y suponen la principal fuente de ingresos de Meetings&Events, por delante de las reuniones del sector sanitario y del ámbito institucional.

También se han acogido 31 congresos de los cuales 6 han aglutinado más de 1.000 asistentes; se han firmado acuerdos comerciales que afianzan este ámbito a futuro; y, como apunte, se ha reorganizado el equipo de trabajo en función de los segmentes de actividad que abarca creando tres divisiones especializadas: congresos, business y cultura.

Kongresu-mota ezberdinetan (bankuak, empresa, osasunekoak, etab.) 3.158.672,83 euro fakturatu dira. Bilera eta biltzar mota guztietatik gehien fakturatu dutenak empresa-bilerak izan dira (fakturazio osoaren % 36.71), baita osasunekoak ere (% 26,59).

Los distintos tipos de congresos (banca, empresa, sanitarios…) han logrado facturar 3.158.672,83 euros. De los diferentes tipos de Meetings&Events, los que más han facturado son las reuniones de empresa (con un 36,71% de la facturación total) y los sanitarios (26,59%).

## Jarduera musikal eta artistikoa.

## Actividad Musical y Artística.

2019. urtean kultur balantzea positiboa izan da eta beste urtebetez baieztatu da bertako eta konpoko ohitura nahiz tradizionak Euskalduna Jauregiaren nortasuna direla. Jende guztiarentzat eskaintza oparoa izan du musika, antzerki, opera, ballet, zarzuela, proiekzio eta abarrean oinarrituta.

El satisfactorio balance cultural que arroja 2019 confirma, un año más, que la costumbre y tradiciones propias y ajenas, son santo y seña del Palacio Euskalduna, que ha ofrecido una nutrida oferta para todos los públicos a base de música, teatro ópera, ballet, zarzuela, proyecciones…

Aste Nagusiak eta Gabonak zikloak jarduera kopuru handia metatzen jarraitzen dute. 2019an, mendiari buruzko filmen eta dokumentalen emanaldiak bultzatzen jarraitu dugu.

Tanto Aste Nagusia como el ciclo Gabonak continúan copando el gran número de actuaciones. En el 2019, seguimos impulsando la proyección de películas y documentales sobre montañismo.

Euskalduna Jauregian ikuskizunen aniztasunak markatu du kultur agenda 2019. Urtean zehar. Opera balleta, musika klasikoa, antzezlana, pop-rock kontzertuak eta bestelako musika- eta antzerki-ikuskizunak. Jende ororentzeko aukerak.

La variedad de espectáculos ha marcado la agenda cultural de todo el año 2019 en el Palacio Euskalduna. Opera Ballet, música clásica, teatro, conciertos de pop-rock y otros espectáculos musicales y teatrales. Opciones para todos los públicos.

Aurten ere, antzerki-ikuskizunak izan dira ugarienak (% 33). Atzetik, orkesten kontzertuak (% 20), Musika-Música programen kontzertuak; bestelako kontzertu errezitaldiak (% 10), Opera (% 6), banda (% 2) eta, azkenik, musika klasikoaren errezitaldi eta kontzertuak eta gizarte ekitaldietan emanaldiak (% 1).

Un año más, los espectáculos teatrales han sido los más numerosos, con un 33 %. Por detrás, los conciertos de orquestas con un 20%; los conciertos del programa Musika-Música; otros conciertos recitales han supuesto un 10%, la Opera un 6%, la banda un 2% y por último los recitales y conciertos de música clásica y las actuaciones en actos sociales un 1% respectivamente.

Sarrerak saltzeko kanal propioen bidezko dirubilketa 3,9 milioi eurokoa izan da. Gure bezeroek gehien erabili duten salmenta-bidea www.euskalduna.eus webgunea izan da (% 52).

La recaudación a través de los canales propios de venta de entradas ha sido de 3,9 millones de euros. Siendo www.euskalduna.eus, con un 52% el canal de ventas más utilizado por nuestros clientes.

## Okupazio datuak

## Datos de ocupación

Okupazio datuetara pasatuz gero, honako hauek aurkituko ditugu:

Esta actividad traducida a datos de ocupación, arroja los siguientes datos:

- Okupatze egunak: 328
- Urte osoko okupatze ehunekoa: %90 (365 egunetik)

- Días de ocupación neta 328
- Porcentaje de ocupación anual (sobre 365 días): 90 %

## Ikusle kopuruaren datuak

2019. urtean zenbatu den ikusle kopurua 418.346 da.

## Datos de asistencia

El número de asistentes estimado en el año 2019 es de 418.346.

## Datu ekonomikoak.

2019ko ekitaldian, Sozietatearen diru-sarrerak 7.724.736,97 euro izan dira guztira, honela banatuta:

## Datos económicos.

En el ejercicio 2019 los ingresos totales de la Sociedad se han cifrado en 7.724.736,97 Euros, con el siguiente desglose:

| | Euro/Euros |
|---|---|
| ❑ Ustiapenagatiko diru-sarrerak / Ingresos de Explotación | 6.898.557,20 |
| ❑ Finantza diru-sarrerak / Ingresos financieros | 282.417,50 |
| ❑ Kapital subentzioak, emaitzetara aldatuak / Subvenciones de Capital traspasadas a resultados | 543.762,27 |

Gastuen kapituluak 9.330.502,63 euroko zenbatekoa erakusten du, ondoko banakapen honekin:

El capítulo de gastos arroja un importe de 9.330.502,63 Euros, con el siguiente desglose:

| ❑ Kontzeptua/Concepto | Euro/Euros |
|---|---|
| ❑ Langileriaren gastuak / Gastos de personal | 1.525.806,92 |
| ❑ Amortizaziorako zuzkidurak / Dotación a la amortización | 2.412.987,57 |
| ❑ Bestelako ustiapen gastuak /Otros gastos de explotación | 5.271.205,89 |
| ❑ Finantza gastuak /Gastos financieros | 120.502,25 |

Kontu-sail horietatik ekitaldi honetan 257.196,64 euroko cash-flow positiboa ondorioztatu da.

Ekitaldiaren emaitza 1.605.765,66 euroko galera izan da.

2019an kapitalizatutako gastuen bolumena ondorengo hau izan da:

Estas partidas han dado lugar a un cash-flow positivo en el ejercicio de 257.196,64 Euros.

El resultado del ejercicio es de 1.605.765,66 Euros de pérdidas.

El volumen de costes capitalizados en 2019 ha sido el siguiente:

**Euskalduna Jauregia, U.A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.U.***

| Kontzeptua / Concepto | Euro/Euros |
|---|---:|
| Solairuen arteko barne komunikazioen birmoldaketa / Remodelación Comunicaciones internas entre plantas | 1.711.423,45 |
| Areto eta instalazioen birmoldaketa lanen ingeniaritza / Ingenieria Obras de remodelación salas e instalaciones | 368.110,75 |
| Goi-sukaldaritzako jatetxea eta VIP gela birmoldatzea / Remodelación Restaurante Alta cocina y sala VIP | 354.607,85 |
| Hornitzaileen tuneleko biltegiak / Almacenes tunel proveedores | 297.644,24 |
| Biltzarretarako altzariak berritzea / Renovación mobiliario de congresos | 169.755,40 |
| VIP aretoko altzariak / Mobiliario sala VIP | 135.404,91 |
| Seinaleztapena hobetzea / Mejora señalitica | 133.174,12 |
| Kanpoaldeko 2. Aretoa berritzea / Renovación de la sala 2 Exterior | 96.123,57 |
| Ikus-entzunezko hainbat material / Diverso material Audiovisual | 60.834,19 |
| Buru mugikorreko fokuak / Fotos cabeza movil | 59.950,88 |
| Segurtasun eta Zaintza ekipamenduetako elementuak berritzea / Novación de elementos de los equipamientos de seguiridad y vigilancia | 30.996,04 |
| Bestelako / Otras instalaciones | 28.743,28 |
| Esku-hartzeak ponpa-aretoko instalazioetan / Actuaciones en instalaciones de sala bombas | 26.243,00 |
| Wifi konexioa hobetzea / Mejora de la conexiones Wifi | 14.171,91 |
| Pianoa /Piano | 9.834,71 |
| Ekipamendu informatikoa / Equipamiento informático | 5.020,00 |
| Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas | 5.011,25 |
| Guztira / Total | 3.507.049,55 |

2019ko ekitaldian, Euskalduna Jauregiak neurri berriak abiarazi ditu irisgarritasuna hobetzeko. Besteak beste:

- Eraikinerako sarbide berriak. 6 eskailera mekaniko instalatu dira, eta pasabideetako irisgarritasuna eta komunikazioa hobetu dira.
- Ikus-entzunezkoen edukiei buruzko sistema berria.

En el ejercicio 2019, Euskalduna Jauregia ha desarrollado nuevas medidas para mejorar la accesibilidad. Entre ellas:

- Nuevos accesos al edificio. Se han instalado 6 escaleras mecánicos con mejora en la accesibilidad y comunicación entre vestíbulos.
- Nuevo sistema de contenidos audiovisuales.

- Parkingeko irteera hobetzea, biribilgunera zuzen doan sarbide bat jarrita.

2019an, aretoak eta espazioak birgaitu eta hobetzeko prozesua gauzatu dugu; nabarmentzekoak dira:

- Kanpoaldeko 2. Aretoa eta Vip aretoa birgaitzea.

- Lorezaintzako espazioa birgaitzea: hobekuntzak parterretan eta zabalguneko lorategietan.

- Biltegi berriak.

- Eraikinaren naming eta ikonografia berria. Auditoriumeko, eraikineko solairuetako eta sarbideko guneak berriro izendatzea.

2019an, Euskalduna Jauregiak tokiko programazioa handitu du, eta hirian egon diren jarduera garrantzisuetan parte hartu du; hala, jarduera horiei balioa gehitu nahi izan die, eta Euskalduna Bilboko eta Bizkaiko erreferentziazko erakunde gisa finkatu. Besteak veste, bost denboraldi egonkor eta kalitatezko mantentzen ditu, erakunde hauek antolatuta:

- BOS (Bilbao Orkesta Sinfonikoa)

- ABAO-OLBE (Operaren Lagunen Bilboko Elkartea).

- EOS (Euskadiko Orkesta Sinfonikoa).

- BILBAO 700 FUNDAZIOA.

- BILBAO MUSIKA

Sozietateak urtean zehar batez besteko langilekopurua mantendu du. 2019ko abenduaren 31n 20 pertsonak osatzen zuen.

- Mejora de la salida del parking con una incorporación directa a la rotonda.

También en el 2019, hemos llevado a cabo un proceso de remodelación y mejora de salas y espacios, entre los que distinguimos:

- Remodelación de Sala 2 Exterior y sala Vip.

- Remodelación del espacio de jardinería, realizando mejoras en los parterres y en la jardinería de la explanada.

- Nuevos almacenes.

- Nuevo naming del edificio e iconografía. Nueva denominación de las zonas del Auditorio, plantas del edificio y acceso.

Euskalduna Jauregia durante el año 2019 ha aumentado su programación local y se ha sumado a importantes actividades que se han desarrollado en la ciudad, queriendo así, aportar valor a estas actividades y consolidar a Euskalduna como una institución de referencia en Bilbao y Bizkaia. Entre otras, mantiene cinco temporadas estables y de calidad organizadas por las siguientes entidades:

- BOS (Bilbao Orkesta Sinfonikoa)

- ABAO-OLBE (Asociación de Amigos de la Opera de Bilbao).

- EOS (Orquesta Sinfónica de Euskadi).

- FUNDACIÓN BILBAO 700.

- BILBAO MÚSICA

La Sociedad, durante el año ha mantenido su plantilla media que a 31 de diciembre de 2019 es de 20 personas.

## 2020rako aurrerapena

2020ko martxoaren 14an 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zen, COVID-19 pandemiak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera adierazi zuena.

Aipatu den Errege Dekretuak bertan behera utzi zuen, besteak beste, jendaurreko eta aisialdiko ikuskisunak eta ostalaritza- eta jatetxe-jarduerak egiten dituzten establezimenduak jendearentzat irekitzea.

Gertaera horrek EUSKALDUNA JAUREGIA – PALACIO EUSKALDUNA S.A.U ren 2020ko ekitaldiko jardueran duen eragin negatiboa, urteko kontu hauek formulatzen diren egunean, kuantifikatzea zaila da, ziurgabetasun-maila izugarrian sartuta gaudelako.

Ez da jarduerarik egin ikerketa eta garapen alorrean.

Ez da akzio propioko eskuratzerik egin.

## Avance 2020

Con fecha 14 de marzo de 2020, se publicó el Real Decreto 463/2020 el que se declaró el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por la pandemia del COVID-19.

El mencionado Real Decreto suspendió, entre otras, la apertura al público de establecimientos que desarrollen espectáculos públicos y de ocio así como actividades de hostelería y restauración.

El impacto negativo de este hecho en la actividad del ejercicio 2020 de EUSKALDUNA JAUREGIA - PALACIO EUSKALDUNA, S.A.U, a fecha de formulación de las presentes cuentas anuales resulta de difícil cuantificación al estar sometida a un elevado nivel de incertidumbre.

No se han realizado actividades en materia de investigación y desarrollo.

No se han realizado adquisiciones de acciones propias.